


GERNIKA

BAKEAREN ETA ADISKIDETZEAREN ALDE

GIDOIA: JOSEBA GÓMEZ MARRAZKIAK: AMAIA BALLESTEROS ITZULPENA: INAXIO LÓPEZ

1. BILDUMA





GERNIKA

BAKEAREN ETA ADISKIDETZEAREN ALDE


Bakea eraikitzen eta adiskidetzea bultzatzen laguntzea.

Horra Bakearen eta Adiskidetzearen Gernika Sarien helburu nagusia.

Urtean bi sari ematen dira: bata, oso ezagunak ez diren pertsoneri edo erakundeei ematen zaiena, "Oinarrizko bakea" eratzeko egindako lanagatik; eta bestea, "Borrokalari nabarmenei" ematen zaiena, gatazka adiskidetze bihurtzen lagundu duten bakearen aldeko aitzindari ezagunei, alegia.

Gernika-Lumoko eta Pforzheim-go udalak, Gernika Gogoratzuz fundazioa, Kultur Etxea fundazioa eta Gernikako Bakearen Museoa dira ekimenaren bultzatzaileak.

Lan honetan, 2005. eta 2006. urteetako sarituei buruz jardungo dugu: Juan Gutiérrez, Michael Kasper, Elkarri gizarte-mugimenduaren tailer lokalak, eta 1.000 emakume eta bakearen Nobel sari bat elkarteak.





Sariak 1995ean ezarri ziren, eta urtero ematen dira. William Kellyk eta Alex Carrascosak egindako artelan bat izaten da, adiskidetzea inspirazio-gai nagusi duena.

Sariak apirilaren 26an ematen dira, Gernikako bonbardaketa gogoratzeko ekitaldiekin batera.



JUAN GUTIÉRREZ-EN
BIZITZA





GERNIKA...



... HIRU ORDU BONBEN MENDE...



GERNIKA GUZTIZ SUNTSITUTA GERATU DA.



GORRIEK ZIMENTARRIAK ERE KISKALI
DIZKIOTE.



LAGUN ASKO HIL DIRA GERNIKAN, SEPARATISTEN
HORDEK EGINDAKO ERASOAN.

... ETA BERROGEI URTEKO ISILTASUNA.



HUNKIGARRIA DA KOADRO
HONEK GERRAREN KONTRA ETA
BAKEAREN ALDE ISURTZEN
DUEN INDARRA.



ETA BEREZKOA
DUEN ASKATASUNA
ERE BAI.




SEGI ASKE.
EZ ZAITEZ
GELDITU.



BAKEAREN ALDEKO MEZU
BAT ZABALTZEN DU HERRI
GUZTIETAN BARRENA.



KOADRO HONEK BERE
ITXAROPENAREKIN
ARGIZTA DEZALA
MUNDUA.





ETORRI NIREKIN, HAURRAK.



BADAKIZUE ZE KOADRO DEN HAU?

BAI, ANDEREÑO. HORI "GERNIKA" DA.



OSO ONDO. ETA NORK MARGOTU ZUEN?

PIKATXUK.

JA JA JA



PICASSOK. PABLO PICASSOK MARGOTU ZUEN.

ETA ZER IRUDIKATZEN DU?



ERANTZUNIK EZ? EZ ZAIZUE BURURATZEN ZER IRUDIKATZEN DUEN KOADRO HORREK?

BARKATU. ZURE BAIMENAREKIN...



KOADRO HONEK BAKEA IRUDIKATZEN DU. HORIXE DA ERANTZUNIK OHIKOENA.


NIRE KASUAN, "GERNIKA" NIRE BIZITZA IRUDIKATZEN DU...




... IKASLE GARAIAN, HANBURGON IBILI NINTZEN, GERRA KAPITALISTEN KONTRA BETI PROTESTAN...



... GERO, ONTZIOLA BATEAN LANGILEA ETA GIZARTE-LAGUNTZAILEA IZAN NINTZEN...



... ZENBAIT URTEZ, EKOLOGIA ZENTRO BATEKO BURUA IZAN NINTZEN, MADRILEN...



... BESTE ZENBAIT URTEZ, GERNIKA GOGORATUZ ELKARTEKO ZUZENDARIA IZAN NINTZEN. HORIXE IRUDIKATZEN DU KOADRO HONEK NIRETZAT, NIRE BIZITZA. ETA ZUEN BIZITZAREN HELBURUAK ON EGITEA ETA LAGUN HURKOARI LAGUNTzea IZAN BEHAR DU. ESPERO DUT KOADRO HONEK ARGIA EMANGO DIZUELA.



ATSEGIN HANDIA IZAN DA NIRETZAT ZU EZAGUTZEA, JAUNA.

NIRETZAT ERE BAI. POZIK GELDITUKO NINTZATEKE, NIRE HITZEK GUTXIENEZ ZURE IKASLE BATI ZER HAUSNARTUA EKARRIKO BALIOTE.




GOAZEN, HAURRAK.



JUAN GUTIÉRREZ GERNIKA GOGORATUZ IZENENKO BAKEAREN ALDEKO IKERKETA ZENTROKO FUNDATZAILEA IZAN ZEN. 1987TIK 2001ERA BITARTEAN, ZENTRO HORRETAKO ZUZENDARIA IZAN ZEN.

MICHAEL KASPER



1945eko otsailaren 23an, Pforzheim-go udalerrriak (Alemania) aliatuen aireko bonbardaketa latz bat pairatu zuen.



1987

IA Mende erdi bat geroago, Pforzheim leku lasaia zen. Gerra oroitzapen urrun bat besterik ez zen, denboraren zurrunbiloak ia guztiz azpiratua zuena.



BAINA HALAKO BATEAN...



GAURKO SAIOAN, EUSKAL HIRI BAT EKARRIKO DUGU HIZPIDERA, GERNIKA.

GERNIKAKO BONBARDAKETAN, GIZON, EMAKUME ETA HAUR ASKO HIL ZIREN.

HEMEN BEZALA.



1937ko apirilaren 26an, Alemaniako kondor legioak Gernika bonbardatu zuen. Italiako zenbait hegazkinek ere parte hartu zuten erasoan.





ESAN?...
BAI, HEMEN DA.
BAI? BENETAN? OSO ONDO.
ESANGO DIOT. ESKERRIK
ASKO.



BAIETZ ASMATU.
ALEMANIAKO BESTE UDALERRI
BATEK GERNIKAREKIN SENIDE-
TU NAHI DU. HALA DA,
EZTA?

HALA DA. ALEMANIAKO
TELEBISTA KATE BATEAN
EMANDAKO SAIOAK ERAGIN
HANDIA IZAN DU NONBAIT.



NOLANAHI ERE,
USTE DUT DAGOENEO
HAUTAGAI SENDO BAT
BADUGULA.

1989AN, PFORZHEIM ETA GERNIKA
SENIDETU ZIREN.



URTEAK JOAN, URTEAK ETORRI, ETA, HALAKO BATEAN, NORBAITEK ERABAKI ZUEN URRATS BAT GEHIAGO EGITEA SENDETZE HORRETAN. NORBAIT HORREK MICHAEL KASPER ZUEN IZENA.



PFORZHEIM-DIK STRASBOURGORA...



HANDIK BELFORT-ERA JOANGO GARA, ETA GERO, SANTIAGO BIDEARI JARRAIKIZ, BEHERANTZ EGINGO DUGU, ZENBAIT HERRI ATZEAN UTZITA: BESANÇON, CLUNY, LE-PUY-EN-VELAY, CONQUES...



... FIGEAC, CAHORS, GURS, DONIBANE GARAZI... ETA AZKENEAN, GERNIKA!



DENA PREST. ORAIN PROIEKTUA AURKEZTU ETA FINANTZAKETA LORTU BESTERIK EZ DUGU EGIN BEHAR.



IBILALDIA BI UDALERRIREN ARTEKO SENDETZE PROIEKTU BATEN AMAIERAKO EKITALDIA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO IZANGO DA, HISTORIOAREKIN ADISKIDETZEA BAITA PROIEKTUAREN HELBURUA.

2005EKO OTSAILAREN 23AN, PFORZHEIM-GO BONBARDAKETA GERTATU ETA HIRUROGEI URTERA, PFORZHEIM-EK BAKEAREN ALDEKO IBILDIA ANTOLATU ZUEN. MICHAEL KASPER-EN IDEA IZEN ZEN, GERNIKAN BIZI ZEN ALEMAN HARENA.

MICHAEL KASPER, MINBIZIAK JOTA EGON ARREN, PFORZHIM-ERA JOAN ZEN, IBILTARIEI AGUR ESATERA.



EUSKADIKO ETA ALEMANIAKO HAINBAT LAGUNEK EHUNKA KILOMETRO EGIN ZITUZTEN ELKARREKIN, BAKE GIROAN, HIRU HERRIALDEGAN ZEHAZ.



BIDE ON, ERROMES HORREK!

EPA, KAIXO!



ARRAZOI DESBERDINAK DITUGUN ARREN, BIDE BERBERA EGITEN DUGU. GUZTIENTZAT HAU MAITASUNEZKO BIDE BERA DA.

EGUN BATEAN, MICHAEL KASPER HIL ZELAKO ALBISTEA JASO ZUEN IBILTARI-TALDEAK. EGUN HARTAN, ISILTASUNA NAGUSITU ZEN TALDEAN.



63 EGUNETAN, LEKUKOA ESKUTIK ESKURA IBILI ZEN, 2.055 KILOMETRO EGINEZ.



ETA AZKENEAN...

GERNIKA!




200SEKO APIRILAREN 26AN, BAKEAREN ALDEKO IBILDIA IRITSI ZEN GERNIKARA, BONBARDAKETAREN URTEURRENEAN.




BAKEAREN ALDEKO AZKEN EGUNEAN, MICHAEL KASPER-EN EMAZTEAK ETA BOST SEME-ALABEK JASO ZUTEN HARI EMANDAKO SARIA.




MICHAEL KASPER HISTORIALARIA ZEN, ETA BERLINEN JAIO ETA GERNIKAN HIL ZEN, 45 URTE ZITUELA. ZENBAIT KULTURA-PROIEKTU ABIARAZI ZITUEN, GERNIKAN.



ELKARRI-REN TAILER LOKALAK







INDARKERIAK INDARKERIA
DAKAR. ETA GORROTOAK
GORROTOA. BUKAERARIK GABEKO
GURPIL ZOROA DA.




BERRIRO AGERIAN GERATU
DA ELKARRIZKETA DELA
KONPONBIDE BAKARRA.



BAINA GUZTIENTZAT EZ DA
ERRAZA HITZ EGITEN HASTEA. ARE
GEHIAGO, MAITE DUZUN NORBAITEK
INDARKERIAREN ONDORIOAK PAIRATU
BADITU.



EGIA DA. HALA ERE,
ELKARRIZKETA BEHARREZKOA DA
INDARKERIAK GIZAKI GEHIAGORIK
KALTETU EZ DEZAN.




GAUR EGUNGO EGOERA
ITXAROPENTSURA IRISTEKO, FUNTSEZKOA IZAN DA,
BESTEAK BESTE, ELKARRIK ETA BESTE ELKARTE
BATZUEK GOGOTIK LAN EGIN IZANA.

ELKARRIKOEK
BETIDANIK PENTSATU IZAN DUGU
ELKARRIZKETA ETA GIZARTEAREN
BERRESPENA DIRELA BAKEAREN
GILTZARRIAK.



URTE HAUETAN, BAKE-BIDEAN AURRERA EGITEKO,
DOZENAKA ETA DOZENAKA TAILER LOKAL EGIN DITUGU,
EUSKADI OSOAN ZEHAR.



HERRIETAN...



AUZOETAN...



TAILER HORIEK ELKARTZEKO
ETA EZTABAIDATZEKO GUNE MODUAN
FUNTZIONATU IZAN DUTE. ALDI BEREAN,
ELKARRIREN PROPOSAMENEI ZABALKUNDEA
EMATEKO ERE BALIO IZAN DUTE.



ELKARRI 1992AN SORTU ZEN.




ELKARRI OSATZEN ZUTEN PERTSONAK
PENTSAMOLDE POLITIKO DESBERDINETAKOAK
ZIREN, BAINA BAZUTEN ZERBAIT KOMUNA.



ERA BAKETSUAN BORROKATU
NAHI ZUTEN, INDARKERIAREN
LEKUAN ELKARRIZKETA ETA
ADOSTASUNA EZARTZEKO.




ELKARRIREN TAILER LOKALEK
"BAKEAREN ETA ADISKIDETZEAREN
GERNIKA SARIA" JASO ZUTEN, 2006AN.
URTE HARTANTXE, ELKARRI LOKARRI
BIHURTU ZEN.




KOMIKI HAU 2011. URTEAREN
BUKAERAN IDATZI DA. GAUR EGUN,
ITXAROPENEZKO ARO BERRI BATI
HASIERA EMAN DIOGU, EUSKADIN.

1.000 EMAKUME ETA BAKEAREN NOBEL SARI BAT



AFRIKAKO BAZTER BATEAN...



ANDEREÑO
IRITSI DA.



KAIXO,
HAURRAK.

YUPIII!



EGUN ON, ANDERERO!

EGUN ON,
HAURRAK.



SENTITZEN DUT JOAN DEN
ASTEAN ETORRI EZ IZANA.
GAIXORIK EGON NINTZEN
ETA IBILTZEKO ARAZOAK
NITUEN.



AFRIKAKO LEKU BATEAN...

AFRIKAKO EMAKUME BATEK...



EGUNERO HAINBAT KILOMETRO EGITEN DITU OINEZ,
BASAMORTUAK ETA MENDIAK ATZEAN UTZIZ, HAUR
BEHARTSUEI ESKOLAK DOAN EDO OSO MERKE EMATEKO.

HEGO AMERIKAKO LEKU BATEAN...



ETORRI HONA!



EZ EGIN IHESI!




BANG



EMAKUME ASKO IHESI... MILAKA EMAKUME
DESAGERTURIK, MERKATARITZA SEXUALAK
BAHITURIK EDO ERREGIMEN TOTALITARIOAK
SALATZEAGATIK ERAILDA.

INDIAKO LEKU BATEAN...



MILAKA EMAKUME EZEZAGUN, GAIKOEI LAGUNTZEKO NEKEZ LAN EGINEZ.



RUTH-GABY VERMOT MANGOLD,
1.000 EMAKUME 2005EKO NOBEL SARIRAKO
ELKARTEKO LEHENDAKARIA.

BAKEZKO
1.000 EMAKUME
MUNDUAN.



MILA DIOT,
BAINA MILAKA DAUDE,
MILIOIKA.



MAKINA BAT EMAKUMEK
LAGUNTZEN DUTE BEREN ERKIDEGOAN,
ETA ASKOTAN HORREN ONDORIO LATZAK
PAIRATZEN DITUZTE.



IZENIK GABEKO EMAKUMEA
DIRA. SEKULA HEDABIDEETARA
AZALDU EZ DIRENAK.



ORAIN ARTE BEHINTZAT.





NOBEL SARIA JASOTZEKO HAUTAGAITZA AURKEZTUKO DUGU. MILA EMAKUME EMAKUME GUZTIEN ORDEZKARI IZANGO DIRA.

IRABAZI GERO, EMAKUME GUZTI-GUZTIEN GARAIPENA IZANGO DA, EZ BAKARRIK MILA HORIENA.




IRABAZI EZEAN ERE, GARAIPENA IZANGO DA, EKIMEN HORRETAZ MUNDU OSOAN HITZ EGINO DELAKO.



EMAKUMEEK MEREZI DUTE HAUTAGAITZA HORI.



"1.000 EMAKUME BAKEAREN ALDE" EKIMENAK HAUTAGAITZA AURKEZTU ZUEN, 200SEKO NOBEL SARIA JASOTZEKO. GARRANTZITSUENA EZ DA IRABAZI ZUEN EDO EZ, BAIZIK ETA HORRELAKO HAUTAGAITZA BAT SORTU ZUEN ERREFERENTE SINBOLIKOA IZAN ZELA.



Lege gordailua: VI – 589 / 2015
I.S.B.N.: 978-84-16197-58-3



Komiki honetan, bakeari eta adiskidetzeari buruzko lau istorio kontatzen dira.

Bi pertsonaren ibiliak ere aipatzen dira: Juan Gutiérrez eta Michael Kasper-enak, biek ala biek irabazi baitzuten Bakearen eta Adiskidetzearen 2005eko Gernika Saria.

Bi erakunde ere ekarri ditugu orriotara: Elkarriren tailer lokalak eta 1.000 emakume eta bakearen Nobel sari bat elkarteak. Biek irabazi zuten Bakearen eta Adiskidetzearen 2006ko Gernika Saria.

Bakez, itzaropenez eta etorkizunez beteriko lau istorio dituzue hauek.

Laguntzailea:
Saure argitaletxea

GERNIKA

FOR PEACE AND RECONCILIATION

SCRIPT: JOSEBA GÓMEZ DRAWINGS: AMAIA BALLESTEROS

ALBUM
NUMBER 1

